

## HITZ BITAN

EKIALDEKO TIMOR. Maiatzaren 20an, burujabetza

## Herritarrak independentziaren «erronkaz» ohartarazi ditu Gusmao presidente hautatuak

Erredakzioa | DONOSTIA

Datozen bost urteotan Ekialdeko Timorrek «erronka» handi bati aurre egin beharko diola esan zien atzo herritarrei joan zen igandeko hauteskundeetan presidente kargua irabazi zuen Xanana Gusmao independentziaren aldeko borrokalari ohiak.

Atzo aldarrikatu zuten ofizialki garaile Gusmao, botoen %82,69 lortuta. Bigarren hautagaiak, Francisco Xavier do Amaralek, botoen %17,31 eskuratu zituen. Gusmao presidente izendatuko dute maiatzaren 20an Ekialdeko Timorrek independentzia eskuratzen duenean.

«Itxaropenak handiak dira,

beldurrak eta beharrak ikaragarriak», esan zuen atzo Gusmaok Dili hiriburuan eginiko prentsaurrekoan.

Indonesiaren menpe ia 30 urte eman ondoren, Asiako herrialde txiroenetako bat da Ekialdeko Timor eta arazo handiak ditu, besteak beste, osasungintzan.

### Zorionak

Gusmaoren aukeraketa txalotu eta presidente berria zoriandu dute nazioarteko ordezkari askok azken egunotan. Horien artean Ekialdeko Timor menpean eta Gusmao gerrilla burua kartzelan urte luzez izan zuen Indonesiak. Hassan Wirauda Jakarta Atzerri ministroak Gusmao zoriandu zuen atzo.



Xanana Gusmao Ekialdeko Timorko presidente aukeratua atzo Diliin eginiko prentsaurrekoan.

Joan zen urtean Legebiltzarreko hauteskundeak egin zirenetik lehen ministro den Mari Alkatiri —Fretilin alderdiko burua— bere erakundeak Gusmaoren gobernu berriari oztoporik

ez dizkiola jarriko eman zuen aditzera atzo.

Nazio Batuen Erakundearen administraziopean da egun Ekialdeko Timor. Datorren hilabetean independente izango

da, 1975. urtean Indonesiak inbaditu eta gero burujabetzaren aldeko borroka egin ondoren.

Duela bi urte eta erdi, independentziaren alde agertu ziren timortarrak erreferendumean.

## JUGOSLAVIA

### Gerra krimenez akusatutako 23 pertsona auzitegiara aurkezteko hiru eguneko epea eman du Gobernuak

Jugoslaviako Gobernuak hiru eguneko epea eman zien atzo gerra krimenez akusatutako 23 pertsonari, Hagako Nazioarteko Zigor Auzitegiaren aurrean epaituak izateko beren buruak aurkez ditzaten. Aipatu krimenak Bosnian, Kroazian eta Kosovon egin zituzten, ustez, akusatuek. Gobernuak kaleratutako akusatuen zerrendan, besteak beste, Serbiako egungo presidente Milan Milutinovic eta Bosniako serbiarren buru izandako Radovan Karadzic eta Ratko Mladic ageri dira. Guziei ere genozidioa egin edota sustatu izana leporatzen zaie.

Jugoslaviako Justizia ministro Savo Markovicek atzo azaldu zenez, Karadzic eta Mladic zerrendan agertzeak ez du esan nahi berez Jugoslavian daudenik. Jugoslaviak Hagako Nazioarteko Zigor Auzitegiarekin kolaboratzeko legea onartu zuen joan den apirilaren 11n, eta bertan aurreikusten denez, Bosnian, Kroazian eta Kosovon gerra krimenak egindako pertsonak Jugoslavian egonez gero bertako Poliziak atxilotzen saiatu eta estraditatu dituzte. Nahiz eta Jugoslaviako hiritartasuna ez izan, edo kargu publiko gisa immunitatea izan arren, akusatuen estradizioa onartu zuen gobernuak. Horrek akusatuei eskatu die borondatezko entreng kolaboratzeko.

## KOLONBIA

### Fiskal bat hil dute tiroz, eta lehegailuz beteriko kamioneta bat atzeman dute

FARC talde gerrillariko ustetzeko ekintzaile batek Kolonbiako Fiskaltza Nagusiko arduradun Javier de Jesus tiroz hil zuen atzo, hegoaldeko Puerto Rico herrian. Bestalde, atzo Medellinen —Kolonbiako bigarren hiria— lehegailuz betetako gas bonbona batzuk atzeman zituzten kamioneta baten atzealdean —irudian—; ondoko base militar baten kontra jaurtitzekoak zirela uste dute.



LUIS BENAVIDES / AP

## HOLANDA

### Armadako buruak kargua utzi du Srebrenicako sarraskiaren inguruko afera dela eta

Holandako Gobernu osoak herenegun dimisioa eman ostean, kargua utzi zuen atzo Ad van Baal Armadako buruak. Iragan astean kaleratu txostenean gobernuak, militarrek eta NBek 8.000 lagun heriotza ekarri zuen sarraskia saihesteko behar adina lan ez zutela egin ondorioztatu zen. Nazioarteko tropen buruordea zen Van Baal 1995ean Bosniako serbiarrek hilketa egin zutenean.

## MADAGASKAR

### Bere burua presidentetzat jo duen Ravalomananak esan du prest dagoela berriz hauteskundeak egiteko

Marc Ravalomanana —bere burua Madagaskarko presidentetzat jo du— prest da bozak berriz egiteko, azken hauteskundetako botoen zenbaketa berriak ez badu erakusten bera dela garailea. Auzitegi Gorenak emaitzak baliogabetu ditu—Ravalomananak botoen %46,44 eta Didier Ratsirakak %40,61 lortu zituzten—, eta bigarren itzulia egin beharko dute.

## HERNANIKO UDALA

### LEHIAKETA

Alkateak 2002ko apirilaren 10ean hartutako ebazpen bidez prozedura ireki arrunta bidezko lehiaketa deitza erabaki zuen Udala informazio aldazkari baten idazketa, produkzioa eta argitalpena kontratatzeko.

Apirilaren 18ko 781/86 Errege Lege Dekretuaren 122. ataleko 2. idaztiaren arabera, Administrazioaren Baldintza Berezien Orria eta eskaintzak aurkezteko iragarkia batera kaleratu dira, eta Baldintza Orriaren kontra erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira iragarkia argitaratu eta hurrengo 8 egun baliodunetan.

Epe horren barruan erreklamazioaren bat egingo balitz, esleipena eta eskaintzak aurkezteko epea eten egingo lirateke. Eta erreklamazioen inguruko ebazpena eman eta hortik aurrera hasiko lirateke kontatzen agortu gabe gelditu diren egunak.

#### 1. ESLEITZAILEA.

a) Erakundea: Hernaniko Udala.

b) Espedientea bideratu duen saila: Kontuhartzailletza.

#### 2. KONTRATUAREN XEDEA.

a) Udala informazio aldazkari baten idazketa, produkzioa eta argitalpena.

b) Kontratua epea: bi urte, 2001eko urtarrilaren 1etik hasita.

#### 3.- IZAPIDEAK, JARDUNBIDEA ETA ESLEIPENA EGITEKO MODUA.

a) Tramitazioa: arrunta.

b) Jardunbidea: irekia

c) Modua: lehiaketa

#### 4. ESLEIPENAREN AURRE-KONTUA.

- 21.138 euro urteko (BEZ barne)

#### 5. ARGIBIDEAK ETA AGIRIAK ESURATZEKO MODUA.

a) Erakundea: Hernaniko Udala; Kontuhartzailletza.

b) Helbidea: Gudarien plaza, 1.

c) Hertia eta posta kodea: HERNANI, 20120.

d) Telefonoa: 943.337.000

e) Argibideak eta agiria eskuratzeko epea: iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 26 egun (9:00etatik 13:00etara).

f) Aurkeztu behar diren agiria: Administrazioaren Baldintzen Orrian zehaztutakoak.

g) Agiriak aurkezteko tokia:

1. Erakundea: Hernaniko Udala. (Diruzaintza).

2. Helbidea: Gudarien plaza 1, 1. solairua.

3. Hertia eta posta kodea: Hernani, 20120.

7. ESKAINTZAK IREKITZEA.

a) Erakundea: Hernaniko Udala.

b) Helbidea: Gudarien plaza 1-2. solairua.

c) Hertia eta posta kodea: Hernani, 20120.

d) Eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondorengo 4. egun balioduna. Azken eguna larunbata bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da.

e) Ordua: 13:00ak.

Hernani, 2002ko apirilaren 12an. ALKATEA.



## MUSKIZKO UDALA

### IRAGARKIA

Muskizko Udaleko Udaltzateak, 2001eko irailaren 27an egindako ohiko batzarrean hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zuen aipatutako udalerriaren auzoko kolektore nagusirako "Santeliceseko saneamendu proiektua".

Erabakia hartu aurretik, jendaurrean jarri ziren bai proiektua bai proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda; izan ere, hori horrela zehaztuta dago Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17. artikuluan eta ezar daitezkeen gainontzekoetan.

Muskizko Udaleko eskaerari erantzunez, eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko Zuzendaritzak aldeko txostena emanda, 2002ko otsailaren 19ko Dekretu bidez, aipatutako proiektua egiteko beharrezko ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu behar zirela adierazi zen. Horrek, era berean, aipatutako ondasun eta eskubideak hartzea dakar, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Legea betez, Muskizko Udalak erabaki zuen honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasun eta eskubideen titularrei deia egitea adierazitako egunean eta orduan, eta aurretiaz Muskizko Udalera joanda, ukitutako ondasunen hartu aurreko agiria egiteko.

Interesdun guztiak, bai eta ukitutako ondasun eta eskubideen gaineko eskubide edo interesak dituztenak ere, edo behar bezala baimendutako ordezkariak bertaratu beharko dira egintzara. Bertaratuak titulatasuna egiaztatzen duten agiria eraman beharko dituzte (eskritura publikoak, pribatuak, egiaztatgiriak, Jabetza Erregistroko informazio-oharrak...), bai eta kontribuzioaren azken ordainagiria ere. Titularrek, euren kargura, perituek eta notarioa eraman ahal izango dituzte, hala nahi izanez gero.

Ondasuna hartu aurreko agiria 2002ko maiatzaren 21, 22 eta 23an egingo dira. Titular guztiak zitalzio-zedula bidaliko zaie agiria egiteko tokia, eguna eta ordua jakinarazteko. Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutako gainontzeko argitalpenak ere egingo dira.

Halaber, interesdunek, bai eta eskubide errealeko interes ekonomikoaren titular izanik argitaratutako zerrendan agertu ez diren ere, alegazioak egin ahal izango dituzte idatziz Muskizko Udalean (San Juan auzoa, 2, 48550 Muskiz). Alegazioak aurkezteko azken eguna ondasunak hartu aurreko agiria egiteko zehaztu den eguna izango da, eta horien helburu bakarra ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendan egindako okerrak zuzentzea izango da. Hori guztiari bat dator Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 56.2. artikuluan zehaztutakoarekin.

Muskizen, 2002ko apirilaren 17an.  
Izpta. Gualber Atxurra Perez. ALKATE UDALBURUA.